

go kultur tradizio aberatsaren haritik egin bait daiteke hori), teokraziak eta nomokraziak ahaztu (hots, erlijioa eta politika banatu, bakoitzari bere izena emanaz), ala islamismo eskubitar, fatalista, itxiaren hesietan gordeta jarrai, feudalismoaren egituretatik ateratzeko borondaterik gabe, barneko kontradikzioek lehertuko duten arte. Ezaguna da kristautasunak berak baino ere nekezago irentsi dezakeela marxismoa Islam-ek. Sozialismoa islamizatzerik izango ahal du?

Sha Reza Pahlevi bidali dute. Ez dirudi amerikarren erabateko babesik duenik. Ayatollah Khomeini-rekin hitzegitera joan dira behintzat. Une honetan ez da erraza zer gertatuko den asmatzea: Khomeini-k Parisetik eskatzen duenez, errepublika islamikoa sortuko den, ala Iran-go armada, munduko modernoenetakoa, Shari leial izango zaion.

Baina ez errepublika ez monarkia da, berez, inolako interbidetik. Programa politiko orokorra behar da. Khomeini-k, adibidez, ez du antzekorik ezer agertu orain artean. Sha hankaz gora botatzarekin eta errepublikarekin ez litzateke, bada, besterik gabe, Iran-go herriaren gurutzebidea bukatuko. Nondik abiatuko ote bigurutzeko historiko honetan? ■ *Manolo Pagola.*

«Konstituzio Espainako»ren euskara negargarria

Dakigunez, bi argitalpen izan ditu euskaraz 1978ko Konstituzioak. Lehenengoa, krema kolorezko liburuxka batetan (600.000 aleko tirada), eta bigarrena 1978ko Abenduaren 29ko BOE-Gaceta de Madrid (núm. 3.116) delakoan. Zoritxarrez, bi aldaketa ekarri ditu bigarren honek. Konstituzioaren kontrakoak garenon ikusmira batetik diogu zoritxarrez, zeren eta lehenengoan pozez betetzen gintuen Disposapen Derogatzailerak honela bait zion: «Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio hontan ezartzen diren disposapen guztiak». Bigarren aldaketari, euskaldun bezala deritzogu zorigaitzoko: «Espainiako Konstituzioa» «Konstituzio Espainiako» bihurtu bait digute, barruan dakarren euskara gaiztorako presta gaitzen edo. Diferentzia hauez kanpo, astakeria berdin berdina esaten dira bi testuetan.

Erdal testuaren itzulpena ote den ere zalantzan jartzekoa da. Zuzen zuzenean erdararen kontrakoa —antitetikoa— adierazten duen dozenaka pasarte aurkitu bait dugu. Honela 8. artikulua 2. atalean, erakunde militarren lege organikoak «*aurreko Konstituzio*ko funtsen arabera» eratuko dituela agintzen duenean. Edo 102. artikulua 2. atalean. Ganbaren akordioez ari dela, «Konstituzioak ezartzen dituen gehiengo bereziaren *kaltetan*» izan-

go direla manatzen duenean, gaztelaniak «sin perjuicio» esaten duen tokian.

Baina 112. artikuluan «Konfidantza emanda bezala ulertuko da Diputatuen *gutxiengo* soilak haren alde botua ematean» irakurri ondoren kezka larri bat datorkigu: ez ote dute gehiengoaren dikadura ankerria ankaz gora bota nahi izan euskal testuan guttienez?

Kontraesanak dozenaka badira, ezberdintasunak milaka, baina artikulu honen beharrezko laburtasunak ez digu tokirik uzten. Zehaztasun gchiago nahi lukeenak jo beza 1978ko Abenduaren 17 eta 18ko DEIA n argitara genuen artikulura.

Konstituzioaren «euskarazko» testu horren ondorio juridikoak farregarriak baldin badira, euskarak eta euskal gramatikak testuan zehar jasotzen dituen ostikadak ez digute farrerik eragiten. Edozein gramatikalari, testu hori aztertzen hasiko balitz, «esaldi-ez-gramatikala» adierazteko izarrak, Ejerzitoari berari eskatu beharrea ikusiko litzateke. Zaila baita itzulpen horretan esaten diren gauza askori euskararen tankera hartzea ere. Begira bestela: «Botere publikoek, ikastetxeak legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten lagunduko dituzte» (27-9.).

Arlo honetan dauden astakeriarik nabarmenenak Izen Sintagmak egiterakoan (Nominatiboa eta Ergatiboa behin eta berriro nahasten dira) eta hauek Aditzarekin duten konkordantzia sortzen dira. «Espainiako Nazioa, justizia, askatasun, seguritate eta hura osotzen duten ontasuna bultzatu eta ezarri nahiaz, subiranotasuna erabiliz, hurrengo nahia adierazten du». dio Hitzaurreak. Bi lerrotan hainbeste hankasartze egiten direnean, zer ezanik ez dago.

Galdegaiak, berriz, ez digu berri on hoberik banatzen eta frase askoren eraketa traketsak gaztelaniazko testuak, logika pittin batez irakurritz gero, esan nahi digunetik oso urrun eramango gaituzte.

Lexikoa egiten diren aurkikundeek liburu oso bat behar lukete banan banan esplikatzeko. Badira hainbat adberbio harrigarri (ustezki=presuntamente, arauzkoki=reglamentariamente, nazioartekotasunki=internacionalmente) eta baita ere gure hiztegi teknikoak egiten ari direnen zenbait buruhauste agudo eta erraz erabakitzen duen terminorik (Batzorde nahasi=Comisión mixta; Osoa=el Pleno; kreditoa kizkur=contraer crédito; barrukotasun=intimidación; Bestelaketa, ezinbestekotasun eta ezinbetetasun printzipioak=Los principios de inalienabilidad, imprescriptibilidad e inembargabilidad; etab.).

* * *

Gortek, Konstituzioa Boletín Oficial del Estado delakoan euskaraz ere argitaratzea (lehenengo aldiz) agindu zutelarik ez zuten esan balio juridikorik izan zezakeenik testu honek. Eta eskerrak, esan behar dugu. Tristeia da hau esan behar izatea, baina hala da.

Inor, «euskarazko» Konstituzioan oinarriturik, bere eskubideak esijitzera ausartuko balitz, nolako problemak sortuko liratekeen asmatzea ez baita zaila.

Eta hauxe da gure errelesio nagusia: Horrelakoa ote da Konstituzioan euskararentzat agintzen den ofizialtasuna? Noiz arte izango ote da euskara, itxurak bete eta demagogia merkea egiteko bakarrik serbitzen duen zerbait? Noiz arte iraungo ote du «Gainera, hori inork ez du irakurriko eta berdín zaio» kriterio horrek?

Eta bukatzeko, ez genuke aipatu gabe utzi nahi hainbat aldiz bururatu zaigun pentsakizun zitala: euskarak hainbeste eta hain kalitatezko defenditzaileak dituelarik, nola ez da altxa inoren ahotsik *Madrileko Gobernuak* egindako irain honen aurka? Zeren eta, guretzat, argi baitago errudun nagusia, bakarra ez baldin bada ere, Estatua bera dela eta ez izerdi galantak bota ondoren itzulpen kaxkar hori burutu duen itzultzaile kaxkarra. Gailegoek egundoko protestak altxa dituzte gailegozko testuak zenbait erru gramatikal omen zituelako. «Euskarazko» testua irakurri ondoren protesta egiteko arrazoin faltaz ez gaude behintzat. ■ *Antton Elozegi* eta *Mikel Larraz*.

Espainiako Konstituzioa eta Euskaltzaindia

Espainiako Konstituzioaren itzulpena dela eta, makina bat bil kuratan eta ia periodiku guztietan, protestak entzun ditugu. Eta zoritxarrez, ez zaie arrazoirik falta, testua bera ikusita.

Arazo honen inguruan, bi puntu kritikatu dira batez ere: akats gramatikalak eta hankasartze teknikoak. Izan ere, akats gramatikalen horiek, elementalak eta ugari izanik, ez dira barkagarri. Bestalde, bistan da, honelako testu bat itzulgaitza dela, eta ez dela pertsona batek bakarrik egitekoa, hiztegi juridikoa egin gabe du gularik.

Baina bada hirugarren kritikagai bat, oso larria nere ustetan, eta batek baino gehiagok Euskaltzaindiaren aurka erabil lezakeena, eta erabiliko duena. Itzulpen honetan, Euskaltzaindia, nola edo hala, inplikaturik dago. Tamalez, Euskaltzaindiak lan hau zein neurritan ikusi eta onartu duen ez dakit. Dakidana da, ez dela holakorik lehendabiziko aldiz gertatzen. Euskaltzaindira laguntza eske jotzen duenak, garantia handiagoa behar du. Nere ustetan, itzulpen honen publikapenak, Euskaltzaindiaren funtzionaketaren ahulezia larri bat salatzen du, alegia, kalitatea neurtuko duen kontrolbideak falta direla. ■ *Kepa Etxeberria*.